


KLIMA

❖ KLIMAREN ELEMENTU BALDINTZATZAILEAK:

➤ **LATITUDEA:**

Eguzki izpiek eta lurraren inklinazioak eragin nabarmenetako batzuk dira eguzkia gorago dago eta izpiek zuzenean jotzen dute, neguan berriz beheago. Beraz lurra inklinaturik badago eguzki izpiak Europara beti zeharka iritsiko dira.




Horrez gain latitudeak ere gune atmosferiko iraunkor batzuk sortzen ditu:

- **Antizikloiak:** Hauek presio altuko guneak dira eta desberdinak daude; Sahara aldean Azores, Tropikoan antizikloi gerrikoa dago eta honek haizea hotza dauka, baina Ipar/Hego poloan antizikloiek haize beroa daukate. Orokorrean antizikloiek haize egonkorak, eguraldi oskarbiak eta prezipitazio gutxi dakarte.



- Siberiako urtaroko antizikloia: Siberiako antizikloia neguan hoztu egiten da eta honek ezi ditu itsasoko

frenteak sartzen utziko, udan berriz berotu egiten da borraska bilakatuz, gutxika-gutxika Europa osotik zabalduz eta frenteak sartu ahal izango dira.

- **Borrasak:** Haize hotza eta haize bero aurkitzen diren lekuan ematen da, hauetan ere frenteak hotzak zein beroak sortzen dira. Azken finean borraska bi antizikloi, hotz eta beroen arteko ondorioa da.



Europan antizikloi eta borrasken erdi-erdian gaude baina normalean borrasken menpe. Udan antizikloiak gora egiten du, gure latitudeerantz eta mediterraneora batez ere eguraldi ona, lehorra eta berotsua dakar.



ITSASOAREN ERAGINA:

Kostaldeko lurraldeetan itsasoak tenperaturak leuntzen ditu, hau da, efektu termorregulagailua dauka, hau da urak denbora gehiago behar du berotu eta hozteko, horregatik itsaso alboko lurrak epelegoak izaten dira. Baina hezetasuna eta itsas korronteak emango ditu, baita brisak ere eta honek tenperaturak jaitsi egiten ditu.

- **Hezetasuna:** Europa penintsula bat dugunez urez inguratutako dago, beraz aire masak bertatik pasatzean hezetasuna hartuko dute, horrela prezipitazioak eraginez.
 - **Jet stream:** Haize korrontea da, mendebaldetik ekialdera buelta ematen du, beraz egoera atmosferikoa beti etorriko da hego-mendebaldetik, kargatuta datorrenean prezipitazio masak utziz
- **Itsas korronteak:** Golfoko itsas korronteen eragina Carbitik-Europara doa, eta gure itsasoek zonaldea epeltzen dute.

➤ ERLIEBEA ETA ALTUERA:

Leku bakoitzak bere ezaugarri geografikoak ditu eta hauek era desberdinean eragiten dute. Mendikate nagusienak Europan mendebaldetik ekialderantz doaz, eta hauek oztopo bezala agertzen dira aire masentzako. Esaterako Norvegia zonaldean mendi altuen kontra talka egiten du fronteak horrela prezipitazioak sortuz. Gero eta altuagoa izan mendiak orduan eta prezipitazio gehiago emango dira zonalde horietan, gainera tenperaturak ere jaitsi egingo dira altuerarekin bat lurrinak kondentsatu egiten direlako.


❖ KLIMA MOTAK:

➤ MENDEBALDEKO KLIMA, MEDITERRRANEARRA:

Orokorrean uda bero eta lehorrak antizikloia igotzen delako eta prezipitazioak ugariak dira debora gutxitan, udazkenean batez ere. ●

Berezko mediterranearra


- Kostako klima da, Iberia eta Frantziar hegoaldea, Italiako irlak, Damazia kosta, Albania, Greziar irlak, Peloponeso
- Klimogrametan beti hutsune bat emango da, hiru hilabetetan lehorte hidrikoa ematen baita



- Batz besteko tenperatura: Neguan 10° eta udan 25° -
- Prezipitazioak 400-600mm

● **Azpi mediterranearra:**


- Penintsula erdian, Erroman, Toskanan, Florentzian Yugoslavian...
- Batz besteko tenperatura: Neguan 5-7° eta udan 25°-tik gora; urruntzen ari garenez kontraste handiagoak emango dira.
- Prezipitazioak 400-600



➤ **KLIMA ATLANTIARRA:**

Ez dago urtaro lehorrik prezipitazioak ugariak baitira urtaro guztietan. ● **Atlantar hezea eta beroa:**


- Kostako egoerak dira, Oportotik Bresera (*Frantzia Bretoia*)
- Batz besteko tenperatura: Neguan 10-6° eta udan 17-20°
- Prezipitazioak 800 (*mendi gabeko zonaldeetan*)-1500 artekoak dira eta gehien neguan egiten du borrasak gugnadik hurbilago baitaudelako. Gutxien berriz uztailean, hegoaldeko antizikloia gorago baitago.



● **Atlantiar hezea eta freskoa:**

- Bretania Handian eta Irlandan
- Batz besteko tenperatura: Neguan 6-3° eta udan 14-17° -
- Prezipitazioak 800-1500 mendebaldeko kostan, Londres zonaldean, hau da, ekialderago 600-ekoak, lur osoa

zeharkatzen baitute eta jada ez daukate hezetasun handirik.



● **Atlantiar mendialdekoa:**


- Norbegia, Ipar Irlanda eta Eskozia mendebaldean - Batuz besteko tenperatura: Neguan 1-3° eta udan 11-13° -
 Prezipitazioak 1500tik gorakoak. Horregatik populazioa gutxiko zonaldeak dira.



ara arte
 eta udan 18-20° -

● **Azpi Atlantiarra:**


- Holanda, Belgika, Alemania mendebaldea (*Rhin ibai inguruak*), Frantzia ekialdea, Kopenhaga.
 - Batuz besteko tenperatura: Neguan 0° eta udan 18-20° -
 Prezipitazioak 500-800. Gehien udan egiten du Siberia antizikloiak ez dituelako frenteak pasatzen usten.



➤ **KLIMA KONTINENTALA:**


● **Azpi kontinental:**

- Berlin, Praga, Stocolmo, Barsovia...
- Bataz besteko tenperatura: Neguan $-1(-5)^{\circ}$ eta udan $18-20^{\circ}$
- Prezipitazioak 500-800mm-koak eta gehien bat udan ematen dira.




● **Kontinental Errusiarra:**

- San Petersburgo, Polonia ekialdea, Bielorrusia, Estocolmo mugararte, Mosku, Kazal eta Uralak arte Hegoaldean, Kiev, Bolbogrado...
- Bataz besteko tenperatura: Neguan 6° tik beherakoak eta udan $18-20^{\circ}$
- Prezipitazioak 500-800mm ekialdean eta Volgogradon, Kazanen... 350mm- arte jaisten dira.




● **Kontinental Danubiarra:**

- Viena, Budapest, Bratislava, Serbia, Rumania, Bulgaria... -
- Bataz besteko tenperatura: Neguan $-1(-5)^{\circ}$ eta udan $20-25^{\circ}$
- Prezipitazioak 500-800mm




● **Kontinental lehorra:**

- Kaspio eta Aral bitartekoa; Asiako mugan
- Batz besteko tenperatura: Neguan -5°tik beherakoak eta udan 25° ingurukoak
- Prezipitazioak 250mm baino gutxiagokoak




➤ **PO BAIARAKO KLIMA:**

- Veneziatik Milanera, Alpetatik oso hurbil dauden zonaldeak hotzagoak izango dira.
- Batz besteko tenperatura: Neguan 1-5° artekoak eta udan 25° ingurukoak
- Prezipitazioak 600-900mm



➤ **TAIGAKO KLIMA:**

- Suedia Iparra, Finlandia (kosta ezik) eta Errusia Iparra - Batz besteko tenperatura: Neguak -0° azpitik eta udak 9°-12° - Prezipitazioak 300-400mm



➤ **TUNDRAKO KLIMA:**

- Errusia eta Siberia zonaldean
- Bataz besteko tenperatura: Neguak -20° eta udak 5° beherakoak -
Prezipitazioak 100-200mm bitartekoak



a➤ **KLIMA ALPETARRA:**

- Alpe inguruetan ematen da
- Bataz besteko tenperatura: Neguan 0° tik beherakoak eta udak 5°
ingurukoak
- Prezipitazioak: 1500mm baino gehiagokoak

